

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**DIPUTATU NAGUSIA****Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko
Zuzendaritza Nagusia**

Dirulaguntzak ematea Giza Eskubideetako eta Kultura Demo-kratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura. 2022. urteko deialdia. 2. lerroa: Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoan finkatuta dauden eskualde mailako tokiko garapen agentziei zuzendutako dirulaguntzak, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaitetan.

Diputatu nagusiak ondoko foru dekretua eman du 2022ko uztailaren 28ko datarekin:

Diputatuen Kontseiluak, 2021eko martxoaren 16an egindako bileran, onartu zituen Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak (orokorrek eta espezifikokoak) (2021eko apirilaren 6ko, 61 zk.ko, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN).

2022ko deialdia aurtengo martxoaren 8ko Diputatuen Kontseiluko Erabaki bitartez onartu zen (2022ko martxoaren 18ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 53. zk.). Dirulaguntzen 2. lerroak Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoan finkatuta dauden eskualde mailako tokiko garapen agentziei zuzendutako dirulaguntzak jasotzen ditu, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaitetan.

Oinarri orokorretan ezartzen denez, laguntza horiek elkarrekiko norgehiagoka prozeduraren bidez eman dira. Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak eskaerak aztertu eta baloratu ditu, kontuan harturik zer irizpide ezarri ziren oinarrietan dirulaguntzak emateko, eta ebaluazio batzordeak prozedura ebazteko proposamena egin du.

10.1. oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, diputatu nagusiak emango du deialdiaren ebazpena, foru dekretu baten bidez. Bestalde, 10.2 oinarriak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, deialdi honen ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da dirulaguntzei publizitatea emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horrela bada, ebaluazio batzordeak egindako ebazpen proposamenari jarraituz, diputatu nagusiak

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DIPUTADO GENERAL****Dirección General de Derechos Humanos
y Cultura Democrática**

Concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática. Convocatoria año 2022. Línea 2: Subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias comarcales de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.

El diputado general, con fecha de 28 de julio de 2022, ha dictado el siguiente decreto foral:

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 16 de marzo de 2021, aprobó las bases reguladoras (generales y específicas) para la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 61, de 6 de abril de 2021).

La convocatoria de 2022 para la concesión de estas subvenciones fue aprobada mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 8 de marzo del presente año (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 53, de 18 de marzo de 2022). La línea 2.ª recoge las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias comarcales de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.

Como se establece en las bases generales, el procedimiento de concesión se ha llevado a cabo mediante concurrencia competitiva. La Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática ha analizado y valorado las solicitudes presentadas, teniendo en cuenta los criterios de concesión de subvenciones establecidos en las bases, y la comisión evaluadora ha formulado la propuesta de resolución.

Según lo dispuesto en la base general 10.1, corresponde al diputado general resolver la concesión de la convocatoria mediante decreto foral. Por otra parte, de conformidad con lo dispuesto en la base 10.2 y en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por todo ello, de acuerdo con la propuesta de la comisión evaluadora, el diputado general

EBATZI DU

Ematea foru dekretu honen eranskinean zehazten diren Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoan finkatuta dauden eskualde mailako tokiko garapen agentzietan zuzendutako dirulaguntzak, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaitetan, Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura dirulaguntzak emateko 2022ko deialdiaren barruan (2. lerroa). Horretarako, 150.000,00 euroko gastua xedatuko da zerrendan azaltzen diren erakunde onuradunen alde, zehazten diren zenbateko partzialengatik eta kontu sailen kargura.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete foru dekretu honen aurka Donostia Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko diputatu nagusi honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko uztailaren 29a.—Juan José de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkaria. (5158)

RESUELVE

Conceder las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias comarcales de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad que se detallan en el anexo del presente decreto foral, dentro de la convocatoria de 2022 para la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática (línea 2), disponiendo a favor de las entidades beneficiarias relacionadas un gasto de 150.000,00 euros, por los importes parciales y con cargo a las partidas presupuestarias que se señalan.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 29 de julio de 2022.—El secretario del Área del Diputado General, Juan José de Pedro Alonso. (5158)

Eranskina/Anexo

Espedientea Expediente	Udal onuraduna Ayuntamiento beneficiario	Proiektua Proyecto	Dirulaguntza Subvención	Kontu sailak Partidas
2022-AN01-001-01	Pasaia	Pasaia beste jatorri batzuetako emakumeen taldea.	8.377,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 5.026,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.351,00 €
2022-AN01-002-01	Zaldibia	Zaldibiako harrera instituzionala diseinatu eta martxan jartzeko proiektua.	6.449,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 3.869,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 2.580,00 €
2022-AN01-003-01	Ordizia	Ordizia kolore. Udal harrera sarea eta ongi etorri euskarara.	10.806,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 6.484,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 4.322,00 €
2022-AN01-005-01	Urretxu	Urretxu denontzat.	9.231,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 5.539,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.692,00 €
2022-AN01-006-01	Zarautz	Zarautz herri anitza.	8.156,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 4.894,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.262,00 €
2022-AN01-007-01	Aretxabaleta	Aretxabaletan aniztasunean elkarbizitza euskaraz.	7.645,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 4.587,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.058,00 €
2022-AN01-009-01	Erresteria	Elkarbizitza Erresterian.	9.719,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 5.831,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.888,00 €
2022-AN01-011-01	Idiazabal	Idiazabal anitza.	7.645,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 4.587,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.058,00 €
2022-AN01-012-01	Hernani	Udal bizikidetzaren prozesua eraikitzen. Memoria eta aitortza.	9.841,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 5.905,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.936,00 €
2022-AN01-013-01	Arrasate	Mundutik Arrasatera, Arrasatekin mundura.	9.109,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 5.465,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.644,00 €
2022-AN01-014-01	Oñati	Jatorri aniztasunaren elkar ezagutza eta aitortza sustatzeko udal programa.	9.109,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 5.465,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.644,00 €
2022-AN01-016-01	Eskoriatza	Elkarrekin harremanean, euskara ardatz.	9.353,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 5.612,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.741,00 €
2022-AN01-017-01	Andoain	Ongi etorri Andoainera!	9.231,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 5.539,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 3.692,00 €

<i>Espedientea Expediente</i>	<i>Udal onuraduna Ayuntamiento beneficiario</i>	<i>Proiektua Proyecto</i>	<i>Dirulaguntza Subvención</i>	<i>Kontu sailak Partidas</i>
2022-AN01-018-01	Eibar	Acompañamiento para el ejercicio de la ciudadanía a las/los vecinas/os extranjeras/os.	10.329,00 €	1.0140.400.461.01.02.2022: 6.197,00 € 5.0140.400.461.01.02.2023: 4.132,00 €
2022-AN01-010-01	Tolosaldea Garatzen SA	Elkar ezagutzen 2022.	25.000,00 €	1.0140.400.470.00.02.2022: 15.000,00 € 5.0140.400.470.00.02.2023: 10.000,00 €